

Katalunia euskaldunen begietatik

Subiranotasunaren eta independentziaren aldarria Kataluniako agenda politikoaren lehen lerrora pasatu da azken hiru urteotan, indar ikaragarri gainera. Kaleko mobilizazioek eta azken hauteskundeetako emaitzek iradokitzen dutenaren arabera, gizartearen gehiengoak bat egiten du aldarri horrekin. Kataluniako Legebiltzarrek 2014ko azaroaren 9rako galdeketa deitu zuenetik, gizarte katalanak hasitako trantsizio subiranista atzera bueltarik gabekoa dela dirudi.

Vicent Partalen artikulua bitartez, sarrera orokor eta gainbegiratzailea eskaini diogu Kataluniako prozesu subiranistari, aditu katalan baten ikuspuntutik beti ere. Baina Euskal Herritik begiratuta ere, jakina, prozesu politiko horrek interes berezia du, eta horrexegatik jo dugu Katalunian bizi diren eta hango errealitatea gertutik ezagutzen duten sei euskaldunengana, 'bide katalanaren' gako nagusiei buruzko iritzia eman diezaguten. Honako auziak planteatu dizkiegu: diskurtso subiranistaren hegemonia, gizarte zibilaren gidaritza, sektore ezberdinen erantzuna, Kataluniaren eta Espainiako Estatuaren arteko talka, estatu independentearen diseinua, Katalunia Euskal Herritik eta Euskal Herria Kataluniatik... Galdeketa hau bidali diegunen artean, Kataluniako politika, ekonomia, kultura, komunikazio eta hezkuntza esparruekin lotura zuzena duten adituak daude.

Ondoren, iritzi-emaleei egin dizkiegun sei galderak aurkezten ditugu. Guztiek galdera berak jaso dituzte,

hirugarrena izan ezik: iritzi-emaile bakoitzaren profiletik abiatuta, sektoreka banatu ditugu galdera horretan.

1. Kultura eta hizkuntzaren defentsan oinarritutako katalanismo kulturalak XIX. mendetik hona, eta katalanismo politikoak azken hamarkadetan indar handia izan dute. Baina independentziaren aldeko aldarriak azken lau urteotan baino ez du lortu hegemonikoa izatea. Nola osatu da diskurtso subiranista hori, eta nola iritsi da hegemoniko izatera?

2. 2010etik hona, hainbat plataforma eta elkartetan antolatutako gizarte zibilak hartu du prozesu subiranistaren gidaritzza, alderdi eta erakunde politikoak bide horretara ekartzea lortuz. Zergatik eta nola iritsi da gizarte zibila antolaketa-maila eta erakarpen-indar hori izatera?

3. Nolako jarrera hartu dute gizarte katalaneko sektore ezberdinek prozesu subiranistaren aurrean? Zehazkiago, nola erantzun dute eragile ekonomikoek, enpresari eta sindikatuek? Hedabideek eta sare sozialek? Elizak? Kulturaren eta sortzaileen munduak? Gizarte eragileek, ehun sozialak? Hezkuntzaren eta unibertsitatearen esparruak?

4. 2014ko agertoki politikoa definituta dagoen bezala, Kataluniaren eta Espainiako Estatuaren arteko talkak saihestezina dirudi. Epe laburrera begira, zein erreakzio izango dute Kataluniako alderdi eta erakunde politikoek zein gizarte zibilak?

5. Kataluniako prozesu subiranistaren azken fase edo geltokia estatu independentea da. Azken helburua argi egonagatik, zer proposamen daude estatu horren diseinuaren definizioari begira?

6. Zer irakaspen izan ditzake Euskal Herriarentzat Kataluniaren prozesu subiranistak? Eta zer ekarpen egin diezaioke Euskal Herriak prozesu horri?